

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARRATIAKO INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuen Arratiako Industrialdea Saren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.